

Ipuinak eta bertsoak Tolosaldeko herrietan

TOLOSALDEA. DV.

Galtzaundi Euskara Taldeak hainbat kultur ekitaldi antolatu ditu eskualdean datozen egunetarako. Txikienei zuzenduriko eskaintzarekin hasiz, gaur bertan, Berrobiko Kultur Astearen barruan, Idoia Sanchez ipuinak kontatzen arituko da 17:00etan herriko liburutegian.

Datorren astean, beste bi emanaldi ere eskainiko ditu hilaren 15ean. 17:00etan Alegiako liburutegian arituko da, eta 18:15etan Oreindanera igoko da.

Hilaren 17an, larunbatarekin, bertsozaleek Gaztelun izango dute huts egin ezinezko hitzordua. Hamaika Bertuteren eskutik bertso afaria egingo da gaueko 21:00etan. Mantxi eta Ander Lizarralde izango dira lanean arituko diren bertsolariak.